

# Administrazio zibilean euskaraz sortutako dokumentazio historikoa: konklusioak eta agiri gehiago

(Historical texts in Basque from the civil administration: conclusions and more documents)



TREBIÑO BARRUETABEÑA, Imanol

Bibliotekaria  
 Euskal Herriko Unibertsitatea  
 Gerardo Diego kalea, 4, behekoa  
 01010 Gasteiz  
 trebi.arte@euskalnet.net

BIBLID [1137-1951 (2002), 9; 73-83]

**a**dministrazio zibilaren testu historikoak biltzen dituen liburu bat argitaratu berria dugula-eta, monografia horren osagarri, hainbat ondorio eman nahi ditugu ezagutzera: gure korpus historikoa zein den zehazten dugu, garaiak, dokumentu motak eta kopuruak azalduz; gure ondare historiko horren ezagutza sakonetik atera daitezkeen konklusioen zerrenda bat jasotzen dugu, besteak beste iraganean administrazio zibileko dokumentuak idazten izandako eskolen berri emanez; eta testu zaharren bilduma handitzeko bideez hausnarketa egiten dugu, honekin batera dagoeneko topatu berriak diren agiri multzo biren berri ematen dugula.

**T**ras la reciente publicación de una monografía compilatoria de los textos históricos en euskara de la administración civil y completando ese trabajo ofrecemos una visión general de cuál es el corpus documental de que se compone ese nuestro legado histórico, una serie de conclusiones derivadas de su conocimiento exhaustivo, entre las cuales destacaríamos la determinación de las diversas escuelas que en ese ámbito se han dado, y una exposición de las vías que vemos para ampliar el número de documentos conocidos. Junto con ello damos a conocer dos series de correspondencia civil histórica hasta ahora inéditas.

**a**près la récente publication d'une monographie compilatoire des textes historiques en euskara de l'administration civile et pour compléter ce travail nous offrons un point de vue général de ce qu'est le corpus documentaire dont se compose notre héritage historique, une série de conclusions dérivées de sa connaissance exhaustive, parmi lesquelles on remarque la détermination des diverses écoles qui ont existé dans ce domaine, et une exposition des voies à suivre pour augmenter le nombre de documents connus. Avec cela, nous faisons connaître deux séries de correspondance civile historique, inédites jusqu'à maintenant.

Berritan argitaratu dugu *Administrazio zibileko testu historikoak* liburua (IVAP-HAEE, 2001) eta ondorengo lerrootan argitalpen horretan landu gabe utzi ditugun hainbat arloren berri eman nahi dugu. Izan ere, monografia horren asmoa, administrazio zibilean -elizarena eta militarra aparte utzita- historian zehar, Espainiako 1936ko gerra garaiko Eusko Jaurlaritza baino lehenago, sortutako euskarazko dokumentazio bilduma osoa jasotzea zen, alde batetik honezkero argitaratuta zegoen guztia batera eta era antolatuan jasoz eta bestetik dokumentazio berri andana bat ezagutzera emanez.

Horrekin alor horretan interesa daukan jendearengana ailegatu gura genuen, dela administrazioan erabilitako euskararekin ardura duelako, bai administrazioko langilea izan eta euskaraz lan egiten duelako, bai itzultzailea delako, bai hizkuntzalaria delako, edo baita alderdi historikoan interesatuta dagoelako ere, halako testuen bidez azken batean gure historiari ia errebaso osoa egiten baitiogu garaian garaiko euskarazko testimonio ofizial idatzien lekukoen bitartez, Euskal Herriko historiaren sasoi guztiak-edo daudelako jasoak dokumentu horietan.

Ez gara gu izan arlo honetako dokumentuen bilduma historikoa egiteko interesa izan dugun lehenak, gu baino lehenago ibili ziren horretan Gotzon Egia Goienetxea bere "Noiz sentituko dira merak gure alkatea? Euskal administrazio izkribu zahar batzuk" artikularekin (Senez, 1991, VII, 79-104 orr.) eta gero Deustuko Euskara Juridikoaren Mintegia bere *Euskara, zuzenbidearen hizkera* liburuarekin (1995); eta guk denok ezin izango genuke ezer egin halako agirietan interesa eduki eta aleka-aleka argitara eman dituzten hainbat eta hainbat ikertzailei esker izan-go ez balitz.

Hasiera batean ez zegoen pentsatuta material horren guztiaren kontura ezelango ondorioz ateratzea, dokumentuen bilduma egitea baino ez zen gure asmoa, baina nahi eta nahi ez, horretan dihardugula, konklusioak guregana datoz, berez agertzen dira. Artikulu hau hutsune hori betetzera dator, nahiz eta aurrerapen gisa, liburua bukatuta egon baino lehenago, *Argia* aldizkarian zerbait argitaratu genuen ("Administrazioak historian euskaraz ere hitz egin du", 2000-03-19, 21-23 orr.) eta liburua argitaratu ostean *Euskonews & Media* aldizkarian hausnarketa batzuk plazaratu genituen ("Historian zehar euskarazko testu administratiboek sortu dituzten eskolek izan dituzten ezaugarri komunak berri", 160 zenb., 2002-03-22, <http://suse00.su.ehu.es/euskonews/0160zkbk/frgaia.htm>). Edozein modutan, alde batetik bere planifikazioan sartuta ez zegoelako eta, bestetik, azken ordu edo hilabeteetako presak direla-eta, liburuan bertan ez genuen holakorik argitaratu. Ez dugu guk hemen liburuan dagoen ezer erreplikatu, horretarako dago 772 orrialdetako totxo

hori, eta testu horiek zehatz-mehatz ezagutu nahi dituenak hortxe ditu guzti-guztiak faksimiletan (eskuizkribua denean), transkribatuta eta bere inguru sozio-juridikoa azalduta, denak kronologikoki antolatuta. Gainera HAEEK den bolumenerako merke ipini du interesatuen esku, 18'75 eurotan eroan dezake edonork etxera.

Artikulu honetan hiruzpalau arlo garatzen ahaileginduko gara: a) zein den gure dokumentazio historikoa osatzen duen agiri bilduma, b) multzo hori ezagututa, atera daitezkeen konklusioak eta historian zehar izan diren eskolen berri laburra, eta c) bilduma hori gehiago zabaltzeko egon daitezkeen aukerak eta azken aldiaren topatutako agiri ezezagun batzuen berri. Ekiogun bada.

A) Bilduma osatuta daukagula, esan egin dezakegu **gure arlo honetako korpua zein den**, gure inguruko erdaren produkzioaren aldamenean mugatua bada ere, zer ezagutu eta zer ikertu badago eta, arestian aipatutako *Argia* aldizkariako artikuluan aipatzen nuen moduan. Baditugu alde batetik dokumentu solteak, bakanak, eta bestetik, baita dokumentu sailak ere, administrazio zehatz batek denboraldi luze batez jarraian argitaratutako agiriak. Sail hauek bereziki interesanteak direnez, gure historiako tradizioak, eskolak, osatu dituztelako, artikulu honetan bertan geroago aipatuko ditugu sakonago.

Orain, oso-oso gainetik bada ere, ez da-eta momentua banan-banan aipatzeko, guztira zer daukagun aipatuko dugu: badira hirurogeitik gora gutun Frantzia eta Espainia arteko muga ondoan diren alde bietako herrietako agintariak euren artean trukaturik, 1616tik hasi eta 1907 bitartean; badira sei udal ordenantza, Eibarko 1754koa eta beste bost XIX. mendekoak; XVIII. mendeko hiru udaletako aktak, inportanteenak Iraultza Frantsesaren garaiko Ahetze herrikoak direla; aurrekoaren garai bereko beste administrazio frantsesen erabakiak jasotzen dituzten beste dozenatik gora dokumentu; herrietako elikagaien erremateetan (ardo, pitarra, olio...) badugu beste dozena bat XIX. mendean, gehienak Hernani eta Lasartekoak; biltzar nagusiek edo gortek sortutako artean badugu Nafarroa Behereko 1756ko donazionearen akta eta Bizkaiko Juntetxearen hogeitabi gerra karlisten tartean eginak; herrietako bandoak eta mezuak beste mordotxo bat, hala nola Arrasaten tertzioetako desertoreez ziharduen 1705eko hura, XIX.aren erditik aurrera udalek antolatutako ospakizunen programak (hasiera batean Abbadiak finantzaturako horiek, besteak beste), Gipuzkoako Diputazioak antolatzen zituen nekazari feriak eta Bera herriko 1933tik aurreragoko bando pila hori; eta bukatzeko, Bizkaiko eta Gipuzkoako Diputazioen 1917-1920 sasoi oparoa, batez ere herriei bidalitako zirkularren kontura. Horren ostean Espainiako II. Errepublikaren garaiko Eusko Jaurlaritzaren garaira iristen gara, non *Euzkadi'ko Agintzaren Egunerokoa* inportanteaz gain beste

dokumentu mordoia dagoen euskaraz, berbete hau benetan komunikazio tresna moduan erabili baitzen, dena dela arlo horretan jada ez gara sartu gure ikerketan, guretzat beste garai bat da, nolabait azkeneko hau historia izango litzateke, eta guk berriz "historiaurrea" jorratuko genuke.

Guztira zenbat dokumentu diren esatea ez da erraza, baina irakurleak ideia bat izan dezan gutxi gorabeherako kalkulu bat egiten ahalegindu gara. Baditugu: XV eta XVII. mendeetakoak sei dokumentu, hamar bat orrialde; XVIII. mendekoak hogeita hamahiru bat dokumentu, 150 orrialde inguru, gehienak Iraultza Frantsesakoak eta baita gutun kantitate ederra ere; XIX. mendean 111 dokumentu, 240 orrialde inguru, eta hauei gehitu behar Abbadiak bultzatutako udal Euskal Festak, bere laguntza barik beste erakunde publikoek antolatutakoak eta Gipuzkoako Diputazioaren nekazaritza eta ganaduen bilaldiak, hauek guztiok jada guretzat kontaezinak izan direnak; eta XX. mendean, Eusko Jaurjaritza sortu baino lehenago, beste laurogei bat dokumentu, gehienak Gipuzkoako eta Bizkaiko Diputazioetako zirkularrak, 160 orrialde inguru, gehi Berako bandoen zirriborroak, zeintzuk beste hirurogei edo laurogei bat dokumentu eta orrialde izan daitezkeen, guk ere ezin izan ditugu zehatz kontatu.

Guztira, beraz, hirurehun bat dokumentu, seihunetik gora orrialde, gehi lehen esandako XIX. mendearen erdialdean hasitako ospakizun ofizialtako programak, beste ehun bat dokumentu gehiago azken batean. Denak, hasieran esan dudan moduan, justu administrazio zibileko euskarazko dokumentu ofizialak direla eta Espainiako Gerra Zibilaren garaiko Eusko Jaurjaritza sortu baino lehenagokoak. Kopurua barregarria da, huserkia hutsa, gure inguruko erdaren produkzioaren aldamenean, baina hori da daukaguna, eta hori ezagutu behar dugu eta horri zukua ateratzen jakin.

B) Eta gure korpua ezagututa, zeintzuk dira lauhun urtetako produkzioaren haritik **atera daitezkeen konklusioak?** Hauexek agerraraztea baita artikulua hau sortzearen arrazoi nagusia. Batzuk aipatuko ditugu, nahiz eta horietako zenbait nabarmenak izan:

1. Euskaraz sortutako administrazio zibileko dokumentuen historia salbuespenen historia da. Euskaraz sortutakoa ez da (ia) ezer gure erdaren produkzioaren aldamenean, proportzioz ezta milatik bat ere ez da euskaraz idatzi.

2. Ekoizitakoa konparazioan gutxi bada ere, egon badago. XVII. mendetik, eta batez ere XVIII. mendetik aurrera sortutako agiri multzoa estimagarria da, mila zazpiehunetako ehunkada horretan jada ia tipologia guztietako agiriak daude, ondorengo mendeetan are gehiago izango dugu.

3. Zaila da esaten halako idazkietan arlo honetako euskal teknolektorik, halako hizkera tek-

niko berezirik, sortu ote den, batez ere neu bezalaxe hizkuntzalaria ez denarentzako, baina ikusita hainbat agiriren maila tekniko altua (eta batez ere Iraultza Frantsesaren garaiko batzuekin eta hainbat udal ordenantzekin akordatzen naiz) derrigorrean esan behar baietz, badela hizkera juridiko-administratibo landua eta oso euskara txukunean idatzia. Beste gauza bat garbizaletasunaren (edo garbizalekeriaren) kontua da, horrelakorik ez da agertzen harik eta 1879-81era arte eta Donostiako Udalaren lehiaketa literarioen antolatzailen eta *Euskal-Erria* aldizkariaren giroaren tartetik, ikusten denez abertzaletasun politikoa berez jaito baino lehenago. Horregatik, euskararen kalitatearen aldetik denetatik daukagu gure agiri administratiboaren ondare honetan: testu txukuntxukunak, garbizalekeriaz beterikoak eta euskara mordoilokoak; idazleen prestakuntza, sorterriak eta garaiak oso diferenteak baitira kasu batzuetan eta bestetan.

4. Beste kontu bat da **ea inoiz tradizioerik, eskolarik sortu ote den euskarazko testu juridiko-administratiboak idazten**, ea sasoi batez testu produkzio jarraiturik egon den eta jende multzo bat batera, elkarrekin, aritu den langintza honen zereginetan, euren arteko berri izanik, nolabait erantzun komun batzuk emanez sortzen ziren problemei. Galdera hau botatzen dut gaur egun badirudielako onartutzat jotzen dugula inoiz ez dela tradizioerik egon halako testuak lantzen eta dena berritan egiten, dena asmatu beharrean ibili garela XX. mendearen bukaeratik aurrera.

Erantzuna, historiak zer utzi digun ikusita, ez da tradizioerik ez dugula izan, baizik eta hainbat tradizio, hainbat eskola, hainbat ekinbide jarri eta sistematiko sortu izan direla, beti toki eta alor zehatzetan, baina piztu ziren moduan handik denbora batera hil egin zirela eta handik urte batzuetara beste eskola bat sortzen zenean aurrekoaren berri ez zeukala, konpartimentu estankokoak izan direla euren artean, lehenago tradizioak *ez zaizkigula ailegatu*.

Merezi du aipatzea zeintzuk izan diren bolada jarrai batean bizi-bizi egon ziren eskolak, dokumentuak multzoka ekoitzi dituztenak, eta honekin batera gure korpua osatzen duten eta lehenago aipatu ditugun dokumentu sorta batzuen berri sakonagoa emango dugu. Hauek izan dira:

- Fazeria kontuak direla-eta, Pirinioetako partean estatu biren arteko herrien, alkateen, artean izandako gutun trukaketa, 1769an hasi eta 1907 bitartean. Gure liburuan 1897koa zen arlo horretako azkeneko dokumentua, baina artikulua honen bukaeran argitaratzen ditugun agiri aurkitu berriei esker esandako 1907ra arte luza daiteke dokumentazio sorta horren biziraupena.

Horren kontura sortutako (eta guk topatuta) dokumentuak berrogeitik gora dira, eta euren erdiguneak Sara eta Baztan izan dira, eta kontuan

*Jara 9 de abril de 1824.*

*Saraco abertatu.*

*Baztaneko Valles jaun Abertatu.*

*Jauna,*

*Quero fuenig arabera hamar urteko  
bortu urteko indurji libro jacaia eta zuen  
terminoan, orotatu eta gauden urteko jarduera  
nion Zugarramurdiko herriari 1823 abertatuaren  
lehenetik borta urteko Baztaneko Valles terminoan  
eta jacaia eta baten dela facien arabera: nore  
abertatu borta urteko, jarduera eta dicitad.  
galitatu dicitad arrazina, orotatu eta dicitad  
Zugarramurdiko libro dela eta fuetatu dicitad.  
Biltu izan gara eta presentatu dicit 5 garren  
articulua: eracitu iduritan beditela arrazina  
eta dicitad dicitad bese eta mawrie izan, eta  
nola dicitad beditu urteko ona dicitad  
dicitad dicitad, jauna, igorria abertatu dicitad  
quiron bat edo bira baltatu lan horieko dicitad  
dicitad eta eracitu urteko quere eta Zugarramurdi  
on artian cunac beditu dicitad. Mada boretan*

Sara eta Baztan arteko Korrespondentzia (1824).

izan behar Sarako artiboak oraindik kontsultaezi-  
nak direla, ezin dela beren edukia ezagutu.  
Erdiguneak horiek biok izan dira, baina horretan  
ere parte hartu dute inguru bereko beste hamaika  
bat herrik, hauek: Baigorri, Itsasu, Etxalar, Bera,  
Zugarramurdi, Biriatu, Lasa, Luzaide, Bidarra,  
Donazarre eta Aezkoako bailara. Fazerien auzi  
hauetz gain, mugak berak sortzen dituen arazok  
sortutako agiriak kontuan izaten baditugu, lapurre-  
tak direla, bideak direla-eta, orduan, guztira, faze-  
rietakoak eta hauek gehituta, hirurogeitik gora  
testu ditugu, eta, jakina, gutunak direnez, dudarik  
ez dago elkarren berri bazutela.

- Iraultza Frantsesaren garaiko jarduera.  
Orduan sortutakoetatik hamabost bat dokumentu  
iritsi zaizkigu, gehienak 1789-1795 bitartekoak,  
nahiz eta 1799ra arte ere egon, horietako batzuk  
benetan luzeak eta oso teknikoak. Hauen artean  
aipatzea merezi dute guk jaso ditugun 1789ko  
abendua 14ko *Décret relatif à la constitution  
des municipalités* horren euskarazko itzulpen  
biek. Dekretu honek 62 artikulua ditu eta euskaraz-  
ko bertsioetan, artikuluez gain, euren azalpenak-  
eta agertzen dira, guztira bertsio bakoitzak  
jatorrizko edizioan 27-30 orrialde bete arte.  
Honekin batera, testuinguru beretik sortzen dira-  
eta, Ahetzeko hogeita hamar euskarazko udal  
aktak aipatu behar, 1792-1798 bitartekoak, horie-  
tatik erdia zehatz 1792koak eta beste hamar bat  
1796koak.

Bistan da denbora labur batean itzelezko  
produkzio eztanda egon zela, beti euskarazko tes-  
tuen eskasiaren barruan, eta goi agintarien bultza-

kada eta onespen praktikoaren ondoren herri  
xume baten grefierak, idazkariak, Jean Etxepare  
jaunak, bere jarduna euskaraz betetzeari ekin  
ziola, ez euskaraz bakarrik, baita frantsesez ere,  
aktak hizkuntza bietan baitaude, baina sekulan ez  
itzulpenik egiten, beti dago bertsio bakarra, dago-  
en hizkuntzatan dagoela.

- Bizkaiko Batzar Nagusietako aktak bi  
gerra karlisten artean, 1846 eta 1872 bitartean  
zehatz-mehatz. Urte birok elkartzen ziren Bizkaiko  
Batzar Nagusietako aktetan, ia inoiz hutsik egin  
gabe, hainbat beraldi erdaraz eta euskaraz argi-  
taratu ziren, batez ere korrejidorearen hitzaldiak.  
Gehienetan mintzaldi bakarra agertzen zen ber-  
beta bietan, baina 1864 urtean hiru izan ziren, eta  
1866an zazpi! Guztira, akta horietan, hogeita bi  
beraldi, batzuk motzak beste batzuk benetan  
luzeak, agertzen dira erdaraz gain euskaraz biz-  
kaiera ederrean. Kasu honetan dudarik ez dago  
Batzar Nagusietako onespena bazegoela, baina,  
berdin-berdin, eta guk aztertu dugunaren arabe-  
ra, garbi dago ere arlo honetatik kanpo ezer ere  
ez zela euskaraz egin Bizkaiko erakunde honen  
partetik.

VIZCAICO CORREGIDORE JAUNAK

batzar edo Junta generalen edeguerian garagarriaren  
zazpigar 1862 garren urtian esanico

BERBAALDIJA.

—

JAUNAK.

Ni orain nagan lecutic zucendu deutzubez euren beraldi ondo  
inuitajac, guizon ascoc eta entute andicnac, eta alan da gauza natu-  
ral ta berarizua ni orain barruco icara gozatu bategaz aurquituta,  
bai gomuta onegaz, eta bai pensauric dauca dan honra andija, icusiric  
naguata Vizcaico luur hiarqui onelaco apoderau edo esubidedun  
ain duin diranacaz inguratuta, baturic gaur guztijoo Juata edo batzar  
generalc asieria emoteco, orraico zugatz edo arbola ain entzun  
eta zubc anchifaco foru eta legueen irudi vicijaren azpijan.

Ontat eruango deustazubc, nic, berba eguin haño leenago zubeo  
orain tratu eta erabagui biar dituzuben asunto edo gauceen ganian,  
zuben gomutara ecartia oraingo egunetan bertan eguijatu dan ja-  
zoera zorijoneco hat, ceñtes, izanic poz eta contenturic andijeneua  
euscaldun erri guztijentzat, confirmau eta autortalen dan, ezaugarri  
ciur eta aguirijeneacaz, gure Erreguiña ta Señoriac eta bere Gobernu  
arguitzube iru provincija onen alde ta oian eguiteco dauquen berar-  
rizco empenu eta gogua. Esan dan jazoera orainguagaz, aituten  
emoa gura izan dot Vitorijaco ciudadian, Aita Santubaren decreto  
ta bai-emonagaz, imini dan Obispau barrija, errijao ainbeste nai  
izan dabena, eta ceñten falta, eurae euren erreliginoiari deutesen  
amodijo eta etzeguilasuna gaitie, icustan izan dabena pena eta sen-  
timenturic andijeneacaz, ez dabelaco equui eurentzat bacarric euren  
arimen oneraco aia biar ta preminazua zan Obispaua. Dago, bada,  
beteric falta edo preminau, gure Erreguiñaaren ontasun berarizuae  
alan eguin dabelaco, eta batez bere herac nombrau edo icentau dabc-

Bizkaiko Batzar Nagusiko aktak (1862).

Kasu honetan ere Jose Antonio Uriarte  
idazle ezaguna ezinbestean aipatu behar. Bera  
izan zen testu gehienen euskaratzailea, hein  
handi batean berea da agiri hauen aitatasuna,  
nahiz eta bera ez izan horretan ibili zen bakarra.

Bigarren gerra karlisten ondoren, Batzar  
Nagusiak desegitean, hogeita hamar urte baino  
gehiago iraun zuen jarduera hau ere galdu egingo

da, ordutik landa inongo Batzarrik ez du-eta ez euskarazko ez erdarazko ezta inongo idazkirik plazaratuko.

- Ospakizun ofizialetako programak elebidun agertzea. Agian gaur egun ez diegu horrenbeste inportantziarik ematen administrazioak antolatutako jarduera kulturaletako programak euskaraz ere agertzeari, gutxietsitako esparrua dela ematen dit. Nolabait "folklorikotzat" jotzen dugu, balore eskasekotzat, eta ez dakit agintari batzuen artean ez ote zuen antzeko baloraziorik izan historian zehar eta horregatik egin zuten, beste alor batzuetan euskara inondik inora sartzen ez zen bitartean.

Halako programa euskaldunen, elebidunen, jaiotza Anton Abbadiari zor diogu. Honek ikusi zuen inportantea izan zitekeela ospakizun horien programak euskaraz ere egotea. Abbadiak Euskal Festak bultzatu zituen, hasiera batean Eliza Bestak deituak (elizarekin batera erlaziorik gabe eta bai berriz, askotxo, pilota jokoarekin), diru bat eskaintzen zien herriko etxeei hauek halako jaialdiak antola zitzaizten. Abbadiak dirua jartzen zuen, baina organizatu, mezenasaren iradokizunak kontuan hartuta, udal administrazioek organizatzen zuten, horregatik programak aiuntamentuen dokumentu ofizialak dira, herriko etxeek aterata.

Agertu zen lehena, Abbadiaren Euskal Festekin loturik, Urruñako Udalak atera zuen 1851n, eta horrelaxe urtez urte izan ziren festa kultural hauetan. Hemeretzigarren mendearen bukaeraraino iraun zuen Abbadiak bultzatutako ekimen honek, Euskal Herriko lurralde guztiak zeharkatuz, programak beti elebidunak zirela.

1881erako, data bat jartzeagatik, Abbadiaren lana ondo ezagutzen zutela baina honetatik erabat independente jokatzuz, erakunde ofizialek -udalek eta diputazioek- beste ospakizun kultural batzuk antolatzeari ekiten diote eta beraien berri *Euskal-Erria: revista bascongada* aldizkarian jasoko da. Bertan programa ofizialak hitzez hitz hartuak agertzen dira, guk konprobatu ahal izan dugun moduan, eta horrelaxe aldizkari hau izugarri bide ona da hauen berri izateko, artibo artxibo ibili beharrean. *Euskal-Erria* aldizkaria 1918ra arte bizi izan zen, baina ordurako bazegoen behar bera betetzen zuen beste aldizkari bat, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako *Euskalerraren alde*.

Mekanika horretako partaideak dira Gipuzkoako Diputazioak 1897tik aurrera bideratutako "nekazaritza eta ganaduen bilaldiak". Batez ere nekazaritza feriaren antzekoak izanik, bere legeak, sariak eta inguruko ospakizunak ziren programa elebidunetan argitaratzen zirenak. Zirkuitu bat antolatuta zegoen, hamazortzi herritakoa, eta urterik urtera herri batetik beste-



## OYARZUN-GO

### Nekazaritza eta Ganaduen bilaldiko

#### LEGEAK

Oyarzungo Nekazaritza eta Ganaduen bilaldia, datorren Uztaren 5-an idiki eta 7-an ichiko dana, sari-emate otsandikuarekin, egingo da ondoren agertzen diran muga oeki dagokiyola:

1.<sup>ko</sup> Billaldira sartu nai duten ganadu, egazti eta lur-frutu guztiyak entregatu biarko dira astelen Uztaren 5-an, goizeko zortzietatik amabiyetara bitartian, Bilguma antolatzaillak siñalazten duen lekuan. Juezak erabakiko dute, jendiak parte artu gabetanik, ala ganadu nola gañerako gauza billaldiran artu litezenak, berezirik, beraren iritzian artzeko diña ez diranak. Ontarako, kontuan iduki biar da billaldi au ez dala feriya bat, eta, onegatik, alferrik izango litzakela toki ematia, billaldirari eranzun ez lezateken gauzai.

2.<sup>garren</sup> Billaldiran artua izaten den lur-frutu, egazti edo ganadu bakoitzaren jabiri emango zayo pa-percho agirizko bat bere eskubiderako.

3.<sup>garren</sup> Juezak esango dute zer lekutan jarri biar diran ganaduak, ala nola gañerako lur-frutu eta gauza guztiyak.

Gipuzkoako Diputazioak Oiartzunen antolatutako bilaldiko legeak (1897).

ra pasatzen zen, programa nahiko antzekoa izanik kasu guztietan.

Beraz, Abbadiak zabalduetako bidetik beste batzuk ere sartu ziren eta bilduma joria dago mota horretako dokumentuen artean, XX. mendearen hasieran ondo sartu arte. Agian horregatik, errazegi ikusi ditugulako beste motako dokumentuen aldian, ez diegu honezkero eman behar zuten garrantzia.

- 1917 eta 1918an Bizkaiko Diputazioaren jokabidea. Esandako urte horietan, bat-batean, Bizkaiko Aldundiak izugarri testu administratibo pila kaleratzen du euskaraz; izugarri, lehen ezer ez zegoelako. Herriekiko harremana, zirkularren bitartez egiten zena, neurri eder batean agiri elebidunen bitartez egiten da, hogei bat zirkular euskaldun jaso dugu guk, baina seguru gaude gehiago ere izan zirela. Horrez gain euskaratu ziren, guk topatu ditugula, Espainiako lege bat, Bizkaiko Diputazioaren beraren arautegi bat, eta aldizkari ofizialean euskarazko mozio bat ere agertu zen. Ikusita lehenago ezer ez zegoela, demaseko produkzioa da urte baterako. Eta bat-batean hasi zen modu berean, 1918an berdin bukatu zen, di-da batean.

Bere arrazoia erraza da azaltzeko: 1917an Eusko Alderdi Jeltzaleak Diputazioarentzako hauteskundeak irabazi zituen eta jarrera politikoa aktiboa eta aitortua eduki zuen euskara bultzatzeko, baita administrazioaren barruan ere. Baina hurrengo urtean beste batzuk izango dira erakun-

de hori bereganatuko dutenak eta hauek ja beste asmo bat izango zuten, euskara berriro administrazioetik kanpo utziz.

Edozein modutan, Bizkaian gertatutakoak ondorioak izan zituen eta horietako bat Gipuzkoan izan zen, Bizkaikoak euskararekin hasi zirela-eta autoritate gipuzkoarrek eurek ere zerbait egin beharko zutelara iritzi baitzieten. Bizkaian baino beranduago hasi ziren, baina gero boterea galdu ez zuten luzeago iraun zuen. Berrogeita bat dira guk topatu ahal izan ditugun Gipuzkoako Komisio Probintzialak herriei bidalitako zirkularrak, gehienak 1918 eta 1919koak, 1920koak gutxiago, 1921ean are gutxiago... eta horrelaxe urterik urtera, desagertu arte. Gure interpretazioa oso sinplea da: Bizkaitik zetorkien kezkarik beldurra galdu ziotenean ez zuten aparteko interesik izan agiri euskaldunekin segitzeko. Baina galdu ordurako uzta ederra utzia ziguten.

C) Aipatutako korpus hau zati batean eza-guna zen, beste zati batean guk osatu dugu gure ikerketetan eta pixkaka-pixkaka gaurdaino handituz joan dela ikusita itaundu daiteke ea aurrerantzean ez ote den oraindik gehiago zabalduko. Erantzuna baiezkoa da, **bilduma ez dago itxita**, badira horretarako bideak, eta denbora lagun, dokumentu gehiago agertuko dira. Izan ere, artikulua honetan liburua argitaratu eta gero topatutako dokumentu berri batzuen notizia emango dugu. Dena dela, inork ez du espero behar etorkizunean demaseko aurkikuntzarik egingo denik, eta gainera, badira dagoeneko testu inportante batzuk eta ez dit ematen kasu askorik egin zaienik.

Zergatik dokumentu hauek ez dute honezkeren aparteko interesik sortu? Hainbat erantzun bururatzen zaizkit:

- Alde batetik, nahiko ezezagunak zirelako eta, horrekin loturik, aurreiritzi bat zegoelako: lehenago ez zegoela "ezer", eta zegoenak ez zuela balio.

- Bilduta ez zeudenez, benetan gaitza zela horren gainean inongo ikerketarik egitea, oso sakabanatuta zeuden-eta.

- Euskal kultura eta iraganaren ezagutza eskasa. Aitor dezagun kontu jakina dena, orain arte euskaraz irakurtzeko kapazak ziren euskaldunak gutxi ziren, administrazioan sartutakoak are gutxiago, eta goi ikasketarik ez dugu izan Euskal Herrian; baldintza horietatik abiatuta, normala alor horretako gaitetan, hala nola beste alor askotan, ikerketak urriak izatea. Baldintza horiek azkeneko urteetan aldatu direnez, orain hasi dira halako estudioak agertzen.

- Artxiboak antolatuta ez. Orain arte artxibo nagusiak, erakunde inportanteenetakoak, nolabait zainduta zeuden; baina herrietako artxiboak, eta arlo honetako ikerketarako oso garrantzitsuak dira, izugarri galduta zeuden. Pixkaka-pixkaka

horiek artxibo xeheak orain, azkeneko urteetan, ari dira antolatzen, eta lan horretatik etekina aterako dugu.

Esan dugu korpus hori ez dagoela itxita, gure dokumentu meta txiki hori oraindik gehiago zabalduko dela, baina, zeintzuk dira bada, gure korpusa handitzeko bideak?

1. Artxiboen antolaketa egokia, azken batean historia lantzen diharduen edozeinek esango lukeena. Orain dela gutxira arte nahiko ahaztuta egon dira ikerketarako funtsezko tresna hauek eta gaur da eguna non arreta jasotzen duten, bertan pertsonal trebatua daukagun eta ondo zaindu eta antolatzen diren... halaxe gertatzen denean.

Alde horretatik inportantea izango litzateke artxibozainek inoiz euskarazko dokumenturik topatzen dutenean ikerleei jakinaraztea eta euren inbentarioetan adieraztea. Horrekin loturik ikerleentzako laguntza handikoa izan liteke Irargik artxibo askoren bilduma batera sartuz interneten jarritako Badatu datu basea (<http://www.irargi.org>), honezkero bere fruituak eman dituen baina aurrerantzean are gehiago emango dituen.

Badira, dena dela, gure arlorako inportanteak diren eta egoera penagarrian dauden artxiboak. Gure ikerketetan dokumentu askotxo topatu dugu fazeriekin, hau da, Pirinioetako alderdi bietako estatu udalerrien arteko abereentzako larre komunen loturik eta denak-edo izan dira iparraldeko merke Espainia parteko alkateei bidalitako gutunak eta hegoaldeko artxiboetan topatuak; eta ez alde-rantziz, ez Nafarroa Garaiko alkateek iparraldera igorritako letrak, baina ez horrelakorik ez dagoelako, ziur gaude egon badirela-eta, halako idazkiak iparraldeko muga ondoko udaletxeetako artxiboetan daudelako baino, eta hauetako asko, agian nahiko herri txikiak direlako, agian tokian tokiko eta inguruko administrazioetako autoritateen utzikieriaz, ez daudelako batere antolatutak eta ezin direlako aztertu, ezin bertan ezer begiratu. Sara herria, esate baterako, gune inportantea izan da hegoaldeko herriein halako tratu idatziak izaten, baina Sarako artxiboa ezin da kontsultatu, eta nahiko erraza da hegoaldeko gutun euskaldunak bertan izatea. Badirudi Ipar Euskal Herrian horretan arduratzen duten agintari administratiboak ("politikoak") eta kultur erakundeetako arduradunak azkenean arazo honetaz jabetu direla, bereziki txarra da horko herri txikien egoera, eta konponbidea jarri nahi dutela ("Baionako artxiboaz arduratuko den batzordea bildu da estreinakoz", *Egunkaria*, 2002-03-13, 43 or.), zorionekoa izan dadila ekimen hori.

2. Badira gero atal zehatz batzuk osatu gabeak daudela badakigula: 1616 inguruko Zuberoako agintari eta Erronkariko alkatearen arteko korrespondentzia, zein esku pribatu eta anonimoetan egonik ez dakigun sekulan eskuratu dugu, edo Iraultza Frantsesaren garaian izan ziren eta erreferentziatuak ditugun baina topatzerik izan ez ditugun dokumentu batzuk, edo XIX.

mendeko Euskal Festetako programak, edo XX.eko Gipuzkoako Diputazioaren nekazaritza ferietako programa asko... Ez gaituzte horrenbeste kezkatzen, nolabait kontrolatuta ditugulako.

3. Horrez gain, honezkero ohikoa izan den bide batetik etorriko zaigu berri gehiago: aurkitutako dokumentu bakanez informatzen aldizkari espezialduetan agertzen diren artikuluen solteen bidez. Aleka-aleka mesede egiten dute.

### **Bide hauetatik etorri da orain ezagutzera ematen ditudan dokumentu berrien agerpena.**

Xamar-ek, Joan Karlos Etxegoienek, jakinarazi zuen halako dokumentu batzuk bazirela Aezkoako Batzarraren artxiboetan eta zenbaiten transkripzioa ere eskaini zuen, bai *Nafarkaria*-n, *Euskaldunon Egunkaria*-ren gehigarri horren 100. zenbakian, bai *Orekan: herri eta hizkuntzen ekologi*az liburuan (Nafarroa, Pamiela, 2001, 93 or.) eta gu artxibo haietara bertaratu ginenean are dokumentu gehiago topatu genuen.

Dokumentu horiek justu hementxe daude: Aezkoako Batzarre Nagusiaren artxiboetan, Arike herrian, 98. kaxan, "Documentación en euskara" dioen karpetan, inbentarioan "6. 4. Documentación en euskara" atalaren barruan.

Bi multzotan sailka ditzakegu dokumentu horiek: a) alde batetik Ezterenzubitik bertako merak 1863 urtean Aezkoan diren mugak finkatzeko delegatuei bidalitako gutunak, eta b) 1901 eta 1907 artean Léon Curutchet jaunak, agian kargu diferenteak betez, Donazaharretik Aezkoara bidalitako hiru gutun. Hementxe aurkezten dizkizuegu, eta honekin bukatutzat utziko dugu artikulua hau:


a) 1863ko Ezterenzubi eta Aezkoa bitarteko korrespondentzia erresumetako muga zedarrien gainean.

Gutun bi ditugu hemen, biak 1863ko abuztuan bidaliak, bederatzi egunetako aldiarekin, bata 10ekoa eta bestea 19koa baitira. Ezterenzubiko mera Etcharren jaunak bidaltzen ditu, eta jasotzaileak Aezkoan diren Espainiako Erresumako delegatuak diren Jose Luis Arrese eta Juan Miguel Berrueza jaunak dira. Jorrazten den gaia erresuma bien arteko limiteen zedarrak aztertzeraz joan behar izatea da, hain zuzen Nafarroa Behereko Lekunberri eta Ezterenzubi herrietako parteetan, eta horretarako noiz elkartuko diren lotzea.

Estatu bien mugak zaindu egin behar dituztela-eta, gogoratu egin behar horiek 1856ko Muga Tratatuarekin finkatu zirela azkenekoz,

gure letrak baino bederatzi urte lehenago, eta badirudi gutun hauek nahiko berritan jarritako zedarrak horiek gainbegiratu beharrekin lotuta daudela. Ezin dugu askoz gehiago esan, besteak beste, euskarazko dokumentu hauek beren inguruko erdarazkoetatik at kokatu direlako Aezkoako artxiboetan. Horrela lekutzeari esker, euskarazko dokumentuentzako atal berezi batean egoteagatik, agiriak topatzea oso erraza izan da, baina era berean, bere zertzelada historikoen berri galdu egin dugu.

Ondorengo bi hauek dira aipatutako gutunak, hau lehen:



Ezterenzubi eta Aezkoa bitarteko korrespondentzia (1863).

A Monsieur  
monsieur<sup>1</sup> Jose Luis Arrese, ou Juan  
Miguel Berrueza, Délégués,  
A Aezkoa  
Royaume d'Espagne

Le Maire d'Estérençuby,  
Etcharren<sup>2</sup>

Estérençuby, le 10 Août 1863.

Estérençubico, herrico, jaun mairac,  
Alkhatiac, eta dembora berean limiteen verification-  
neco Déléguatu denac.

1. Bai, errepikatuta.


2. Eta meraren izenaren azpian herriko zigilua agertzen da. Ohar honen gainetik agertzen den guztia, gutun azalean agertzen dena da.

Othoizten ditu, Espainiaco Erressumaco Aezcoan diren, Jaun, Jose Luis Arrese, eta Juan Miguel Berrueza, orobat Délégué direnac, beren limiten verificationneco, guri marcatceaz noiz ethorrico diren, Erroissetaco limitala, bornen edo cedarrien verificationnearen eguiterat. horiec jiten direnean gu han caussituco gare. Othoi arraposta berehala.

Badut ohoria cuen saludaceco, adisquide guissa.

Le Maire.  
Etcharren.

Eta hau bigarrena:



Ezterenzubi eta Aezkoa bitarteko korrespondentzia (1863).

Gouc beherian sinatcen dugu, Esterencubico Alkhatiac, declaratcen dugu, errecebitu dugula, abostuaren 19an 1863, eguerdico orenetan, jaun Dn<sup>3</sup> Joanes Miguel Khoanarena, espagnolaganic, ordria, jalguitecco, cedarrien verificatcerat, Esterencubico limitacoen, hilabete hunen 25an eta Lecumberricoa hilabete hunen 26an – Iskiribatua dena par Dn. Jose Louis Arrese Délégué espagnol, eta cargatu guira Lecumberrico delegatien aberticerat.


Eguina Esterencubin abostuaren 19an 1863.  
Le maire,  
Etcharren.<sup>4</sup>

b) 1901 eta 1907 bitarteko Donazarre eta Aezkoa bitarteko korrespondentzia kabalen eta belarren kontura.

Lurralde bien artean dauden larreen erabileraz, kontratuez eta arazoez dihardute aurkitu ditugun ondorengo hiru gutunetan. Aipatu dugu auzi hauen kontura benetan dokumentu multzo zabala lortu ahal izan dugula espainolaren eta frantsesaren nagusitasunek topo egiten duten mugaren inguruan. Dokumentu hauek, arlo hori jorratzen dutenen artean, eta sortu ziren datari dagokionez, azkenak dira guk topatutakoen artean, baina dudarik ez dugu sail horretako agiriak gehiago agertuko direla, toki eta garai diferentetakoak, batez ere Ipar Euskal Herriko artxiboak ganoraz aztertzerik dagoenean.

Bidaltzailea, hiru kasuetan, Morde Léon Curutchet da, Donazarrean idazkaria dela dirudiena, nahiz eta erabat garbi ez dugun. Aurreneko gutunean "Instituteur" moduan agertzen zaigu, ondorengo bietan beste bi sindikoen partez idazten du; bitan Garaziko eskualdea da idazpuruan agertzen dena, bestean Donazarre bera. Edozein modutan, bere lanak gehiago ematen du idazkari batena zinegotzi edo alkatearena baino.

Ondorengo hauek dira hiru gutun horiek. Lehendabizikoa:



Donazarre eta Aezkoa bitarteko korrespondentzia (1901).

Département des Basses-Pyrénées  
Arrondissement de Mauléon  
Syndicat du Pays de Çize

3. "Dn" hau "jaun" hitzaren gainean idatzita agertzen dela.  
4. Eta behean Ezterenzubi herriko zigitua agertzen da.



listac elgarrekin komparatuz egin duana.  
 Ikusiko duzu anitz kabaladunec hemen  
 deklaratu baino behi gutiago markarazi  
 dutela Españan. baditake zombaitec  
 behi zombait atchiki duketela etchian eta  
 beste zombait franziako mendietarat igorri.  
 Bainan beldur niz beste zombaitec trompatzen  
 gaituztela zuec eta gu.  
 Kasu egin behar liteke hurbildanic  
 gure artzainer eta menturaz ere zuen garder  
 Diote batzu eta bertzeac elgarrekin  
 akomeatzen direla. ez dakit zer fundario  
 duen erran horrec.  
 Zure Secretarioac komparatuko du  
 ene lista bere markako listarekin eta  
 menturaz zerbait argitasun yakinen duze  
 Deus bertzeric egiten ahal  
 badut zuen zerbitzuko gelditzen naiz  
 eta zuen adiskide fidel.

Léon Curutchet

Léon Curutchet  
 Instituteur  
 St. Jean le Vieux – B.P.

St. Jean Le Vieux, le 29 Juin 1901.

Ene adiskide jauna,  
 Eskuaraz izkiatzen dautzut zeren ez baitakit  
 maluroski españolc eta zeren zuc ere ez baitaki-  
 zu naski franxescic.

Iduri zaut klarki izkiatuz elgar konprenituko  
 dugula eskuaraz.

Lehenik barkamendu galdatzen dautzut ene  
 luzamenaz; zure letra hunara ethorri denean kan-  
 puan nintzan. Markac gintuen bost egunez  
 Apanizen eta Iratin. Gero etcherat itzuli nizanean  
 ene listac behar ukan ditut berehala comunicatu  
 garder eta egun choilki izan dut dembora lista  
 horien berifikatzeko.

Beldur niz ez dautzutala zuc nahi zinduken  
 berri chuchenic igorriko ahal, nahiz borondatia ez  
 nuken falta.

Ez da aise segurki yakitia norc dituen kaba-  
 lac españako bazketan, deklaratu eta markatu

Fazeriako kabalac.

Adaria	Kabaladunen izenac	Horia	Esprezua	Esprezua	Esprezua	Esprezua	Esprezua
1	Auzquy. Marchot	Arneguy	4	5			
6	Echomendy. Secora	id.	3	5			
8	Pelogy. Chapar	id.	5	5			
10	Erreart. Abot	Espreua	2	3			
11	Aldacoum. Agueria	Uharté	5	9			
16	Gastelu. Belomelche	Ainhiza	5	8			
23	Gastambide. Mantob	Arneguy	1	6			
25	Aldacoum. Aldakia	Espreua	4	5			
34	Jarador. Gaiete. Goria	St. Jean. Le. Vieux	5	7			3 behi badira segun Espain
34	Carlorena. Larria	Espreua	5	7			
35	Officialdgy. Bideston	Uharté	5	8			
38	Bidegani. Brumbiché	St. Jean. Le. Vieux	6	7			id.
40	Echomendy. Bornatona	Arneguy	3	7			
41	Auzquy. Echomendy	id.	6	9			
43	Laco. Baptista	St. Jean. Le. Vieux	1	9			8 behi badira hor. atzizuel atzizumaria gormatuet
44	Apresteguy. Antchiburu	Espreua	1	9			
44	Harradi. Alcia. Goria	Arneguy	8	10			
45	Laudaburu. Michel	Ainhiza	5	6			8 behi monez; atzizuel Goria eta bota. atzizumaria
56	Echomendy. Bastatin	Arneguy	3	6			
78	Caillaon. Bidegani	Uharté	7	8			8 behi badira hor; atzizuel gabe monez atzizumaria gormat
81	Doray. Bidegani	Arneguy	2	3			
89	Chaprai. Barbarania	Uharté	5	7			
99	Idiat. Barispuu	Uharté	2	7			
100	Orchoulon. Chalho	Arneguy	1	9			
101	Moussougy. Secoteh	St. Jean. Le. Vieux	6	7			7 behi badira hor segun
103	Erreart. Alguellua	Arneguy	10	11			
104	Apresteguy. Pado	id.	1	2			
111	Echomendy. Lohola	Uharté	8	9			Kasu honetan; atzizuel atzizumaria gormatuet
118	Tribarne. Yakorra	Arneguy	11	13			
119	St. Pel. Ameno	Uharté	4	5			
	Bidant. Kristantze	Jacu	"	4			4 behi badira hor segun Espain

gabe; hortako behar gintuzke akit guziac bederaz-  
 ka ikusi.

Emeki emeki gardekin batean berri gehie-  
 nac halere yakin ditzazkegu; bainan hortako  
 behar da adrezia eta dembora.

Aldi huntan igorten dautzut lan ttipi bat,  
 Garaziko eta Aezcoako listac elgarrekin kompara-  
 tuz egin duana.

Ikusiko duzu anitz kabaladunec hemen  
 deklaratu baino behi gutiago markarazi dutela  
 Españan; baditake zombaitec behi zombait atchiki  
 duketela etchian eta beste zombait franziako  
 mendietarat igorri. Bainan beldur niz beste zom-  
 baitec trompatzen gaituztela zuec eta gu.

Kasu egin behar liteke hurbildanic gure  
 artzainer eta menturaz ere zuen garder. Diote  
 batzu eta bertzeac elgarrekin akomeatzen direla;  
 ez dakit zer fundario duen erran horrec.

Zure Secretarioac komparatuko du ene lista  
 bere markako listarekin eta menturaz zerbait argi-  
 tasun yakinen duzue.

Deus bertzeric egiten ahal badut zuen zer-  
 bitzuko gelditzen naiz eta zuen adiskide fidel.

Léon Curutchet<sup>5</sup>


5. Dokumentu hau, honaino, Xamarrek aurkitu, transkribatu eta argitaratu zuen. Guk haren transkripzioa segitu dugu. Ondorengoaren erantzukizuna gurea da.

Fazeriako kabalac					
Ordria	Kabaladunen izenac	Herria	Españan markatu behiac	Garaziko listan deklaratiac	Erraitekoak
1	Auzquy. Marchot	Arnéguy	4	5	
6	Echemendy. Serora	id.	3	5	
8	Boloquy. Chapar	id.	5	6	
10	Errecart. Abot	Ispura	2	3	
15	Aldacourrou. Aguerria	Uharte	5	9	
16	Gastelu. Beterretche	Ainhiza	6	8	
23	Gastambide. Manttola	Arnéguy	5	6	
25	Aldacourrou. Aldabia	Ispura	4	5	
31	Saradar. Gaineco borda	St Jean Le Vieux	6	7	7 behi badira segur Españan
34	Pauloréna. Larria	Ispura	6	7	
35	Officialdéguy. Bidartondo	Uharte	5	8	
38	Bidegain. Irumbèhère	St. Jean Le Vieux	6	7	id.
40	Echamendy. Bernatenia	Arnéguy	3	7	
41	Auzquy. Echeverria	id.	6	9	
43	Laco Baptiste	St. Jean Le Vieux	5	6	6 behi badira hor, Miguel artzainaren gomendian
44	Apestéguy. Anchiburu	Ispura	7	9	
45	Harriet. Aleiraborda	Arnéguy	8	10	
65	Landaburu Michel	Aincille	6	7	6 behi markarazi ditu bestenac, beria ere badu bat numbait.
76	Etchemendy. Basteilia	Arnéguy	3	6	
78	Caillava. Bidegain	Bustince	7	8	8 behi badira hor; bat markatu gabe nausiatic artzainari pagatia
81	Doray. Biscay	Arnéguy	2	3	
89	Chapital. Barberaenia	Uharte	2	7	
99	Idiart. Harispuru	Uharte	2	7	
100	Pouchoulou. Chaltro	Arnéguy	7	9	
101	Moutroustéguy. Pecotche	St. Jean le Vieux	6	7	7 behi badira hor segur.
103	Errecart. Miguelttua	Arnéguy	10	11	
104	Apestéguy. Predo	id.	1	2	
111	Etcharren. Lohola	Uharte	7	9	Kasu huni ere. Yakin dut behi bat hor izanic etcherat yina dela.
118	Iribarne. Yakorria	Arnéguy	11	13	
119	St. Peé Camino	Uharte	4	5	
	Bidart Cristantene <sup>6</sup>	Jaxu	“	4	4 behiac hor ziren marka egunian akitic gabe
	Pouchulu. Ithurraldia	Gamarte	“	8	Ezin atzemanaz gelditu 8 behiac oro pagatiac artzainari

6. Ala Bristantene? Lehenengo letra ez dugu garbi ikusten.

TREBIÑO BARRUETABEÑA, Imanol. Administrazio zibilean euskaraz sortutako dokumentazio historikoa: konklusioak eta agiri gehiago. *Eleria*. 9, 2002, 73-83





Donazaharre eta Aezkoa bitarteko korrespondentzia (1905).

Bigarrena:

Département des Basses-Pyrénées  
Arrondissement de Mauléon  
Commune de Saint-Jean-le-Vieux

Cda el 17  
St-Jean-le-Vieux, le 8 Avril 1905.

Adiskide Julian,


Morde Etcheverriren phartes izkiriartzen dautzut yakin arazteko behar zinduketela okupatu gauazko beharraren kontratuaren berritzeaz.

Contratu hori finitzen da heldu den Oxailean. Morde Etcheverric nahi luke yakin leheneko aldietan bezala behar diren desmarchen egiteko erreparaoac hartuko dituzuenez.

Denbora berian Morde Etcheverric othoizten zaitu igor dezazun berehala Luzaideko aduanara usaiako bermearen documenta.

Egin(en<sup>8</sup>) ezadazu othoi arrapostu bat bi gauza horien gainean.

Zure adiskide  
Léon Curutchet



Donazaharre eta Aezkoa bitarteko korrespondentzia (1907).

Eta hirugarrena:

Basses-Pyrénées  
Arrondissement de Mauléon  
Syndicat du Pays de Çize

St Jean le Vieux, le 28 Octobre 1907.

Cher Monsieur José Larrañeta,

Pena handi batekin yakin arazten dautzut, Morde Louis Etcheverry, gure syndica ohoragarria eta anitz maitatua, hil izan dela hilabete hunen 15<sup>an</sup>.

Morde Luro Lacarracoac egiten du orai haren plaza. Yaun hunen phartez igortzen dautzut abisua helduden astelehenean, azaroaren 4<sup>an</sup>, prest izanen girela zuen pagatzeko.

Yinen zira beraz egun hortan Donibanera zure lagunekin.

Sosa altchatuko duzue Prezeturrean eta gero baskalduko gira elgarrekin usatu bezala, à l'Hôtel des Pyrénées.

Beraz helduden astelehen artio.

Zure zerbitzari,  
Léon Curutchet

- Seguru ez bagaude ere. Nork idatzia den ere ez dago jakiterik. Espainolez balitz, guk irakurtzen dugun moduan, jasotzaileetako batek idatzia izango zen.
- Parentesien barrukoa ezabatuta agertzen da.

